

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

2013 /2014 ikasturtea

ESKAUT MUGIMENDUA BIZKAIAN

Bizkaiko Eskaut Begiraleen Profila Aztertzen

Egilea: Ainhoa Fonseca Calvo

Zuzendaria: Felisa Arbizu Bakaikoa

Leioan, 2014ko Ekainaren 11n

© 2014, Ainhoa Fonseca

ZUZENDARIAREN ONIRITZIA

EGILEAREN ONIRITZIA

A U R K I B I D E A

Sarrera	4.orria
1. Marko teorikoa	6.orria
a. Aisialdiaren kontzeptualizazioa	6.orria
b. Eskaut Mugimendua	8.orria
c. Euskalerriko Eskautak Bizkaia	10.orria
i. Hezkuntza Aukera	10.orria
ii. Fede Aukera	12.orria
iii. Gizarte Aukera	13.orria
d. Eskaut Begiraleak	14.orria
e. Gizarte Hezitzailea Aisialdian	16.orria
2. Marko enpirikoa	17.orria
a. Helburu Orokorra	17.orria
b. Aztertuko diren elementuak	17.orria
c. Informazioa Biltzeko Tresna	17.orria
d. Populazioa eta Lagina	18.orria
e. Prozedura	19.orria
i. Datuen Azterketa	19.orria
f. Emaitzak	19.orria
3. Ondorioak eta proposamenak	30.orria
4. Erreferentzia bibliografikoak	35.orria

ERANSKINAK

1. Eranskina. Galdetegia	36.orria
2. Eranskina. Noiz eta zergatik hasi ziren eskaut taldean begiraleak	38.orria
3. Eranskina. Eskaut begirale izateko pertsona hauen motibazioa	41.orria
4. Eranskina. Eskaut ideologiaren 3 aukerekiko iritzia.	42.orria
5. Eranskina. Eskaut begirale bateak urte batean betetzen dituen ekintzak	43.orria
6. Eranskina. Ezaugarrien Sailkapena	45.orria
7. Eranskina. 13. Beste ezer gehitzeko	47.orria

ESKAUT MUGIMENDUA BIZKAIAN**Bizkaiko Eskaut Begiraleen Profila Aztertzen****Ainhoa Fonseca Calvo**

UPV/EHU

Lan honek Bizkaiko eskaut mugimenduko, eskaut begiraleen profila aztertzen du. Hasiera batean, aisialdi hezitzailearen, eskaut mugimenduaren, eskaut begiraleen eta gizarte hezitzailearen lana aisialdiaren eremuan azterketa teoriko bat egin da. Marko enpirikoari dagokionez ikerketa kualitatibo zein kuantitatibo txiki bat eraman da aurrera, zeinen helburua profil honetan aurkitu daitezkeen 13 elementu aztertzea izan da. Horretarako lurralde honetako begiraleen %10ari galdetegi bat helarazi izan zaio. Amaitzeko jasotako emaitzak aztertuak izan dira.

Hezkuntza ez formala, eskaut, begiraleak, profila, bolondresa

En este trabajo se analiza el perfil del monitor en el movimiento scout en Vizcaya. Inicialmente se ha realizado una revisión teórica sobre el tiempo libre educativo, el movimiento scout, el monitor scout y el educador social en el tiempo libre. En el marco empírico, hemos llevado a cabo una pequeña investigación de corte tanto cualitativo como cuantitativo con el objeto de analizar 13 de los elementos que podemos encontrar en dicho perfil. Para ello se ha utilizado un cuestionario que se ha hecho llegar a un 10% de los monitores de este territorio. Para finalizar se han analizado los resultados obtenidos.

Educación no formal, scout, monitores, perfil, voluntariado

This paper analyses the profile of the group leader in the scout movement in Viscay. First of all, a theoretical revision about educational leisure time, the scout movement, the scout group leader and the social educator in the leisure time has been carried out. In the empirical framework, we have carried out a small qualitative research with the aim of analysing 13 of the elements that we can find in this profile. For that, a questionnaire has been submitted to the 10% of the leaders of this territory. To conclude, the results obtained have been analysed.

Non-formal education, scout, group leader, profile, volunteerism

Sarrera

Pertsonak geure bizitzan jabeak gara eta gure denbora, aisia honen barne, guk nahi ditugun ekintza zein jardueretara dedikatzeko eskubidea dugu, Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 24. artikulua argitzen duen bezalaxe.

“Pertsona orori dagozkio atsedenerako eskubidea, aisiarakoa, lanaldiaren iraupen mugatua izatekoa eta aldian – aldian ordaindutako oporrak izatekoa”

Horrela ikusiko dugun bezala, badaude pertsonak euren aisi edo denbora hori boluntario moduan ematen dutenak, hainbat entitate, mugimendu edo proiektuetan.

Honen barruan, gure lanaren xede diren eskaut mugimenduko begiraleak ditugu. Pertsona hauek euren aisialdian haur eta gazteen hezkuntza prozesuan parte – hartzen dute, ondorioz hezitzaileak dira. Adi berean, jendartearekin konprometitutako pertsonak dira, ezin ahaztu dezakegu pertsona hauek ezaugarritzen duten garrantzi handia duen elementua, bolondres izatea.

Lan hau Bizkaiko lurraldean kokatua dago, bertan existitzen diren eskaut talde ezberdinetako begiraleak hautatuko direlarik eranskinetan agertzen den galdetegi erantzuteko. Galdetegi honen helburua bolondresak diren begirale hauek gizartearekin, euren taldeekin eta mugimenduarekin duten konpromisoaren zergatia aztertzea da.

Lanaren mamia izango delakoan murgildu aurretik, garrantzizkoa da jakitea eta azaltzea lanaren zergatia. Hau da, zergatik hautatu izan dudan gai hau lantzea eta baita horrela lantzea ere.

Ni, gizarte hezitzailea izango naizen hau, eremu honetako profesional bilakatuko naiz eskaut mugimenduan eta munduan barneratzean izandako esperientzia eta barneratutako hainbat balioren ondoren. Baita eremu honetan landutako balio, jarrera, gaitasun ... ezberdin jaso ditudalarik . Aurten nire bosgarren urtea da taldean, begirale bezala hasi bainintzen 17 urte nituelarik. Une hartatik ikasi dudana ezin laburbildu daiteke paragrafo batean, ezagutu ditudan pertsonak eta barneratu ditudan hainbat ezagutza naizena izatea eragin dute.

Hori dela eta, nik mugimenduan izan dudan esperientzia eta izaten jarraitzen dudana, dedikatzen diodan denbora, honekiko dudan sentimendua eta motibazioa ... konpartitua dela dakit beste eskaut begirale batzuekin. Baina hori al da Bizkaian gauden taldeetako

begiraleen errealitatea? Hori da, hain zuzen ere lan honen helburua, jakitea zelakoak garen mugimendu hezitzaile garrantzitsu hau osatzen dugun pertsonen profila.

Horregatik Gizarte Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana, Eskaut Begiraleen Profilaren ingurukoa izatean, eskautismoa mugimendu hezitzailea da, hezkuntzan sinesten duena. Beraz begiraleak hezitzaileak gara, gizartean, gizarterekin eta gizartearentzako lan egiten dugularik, etorkizuneko herritarrak izango diren haur eta gazteak sinesten dugun balioetan heziz.

1. MARKO TEORIKOA

Aisialdiaren barruan elementu ugari aurkitu daitezke eta baita eremu ezberdinak. Hori dela eta hasteko ezinbestekoa da gaian kokatzea eta aisialdiaren inguruan ezagutzak aberastea.

a. Aisialdiaren kontzeptualizazioa edo definizioa

Aisialdi hezitzailea haurtzaro eta nerabezarorako hezkuntza aukera bat da, hezkuntza ez – formal hain zuzen, zeinek helburu pertsonalizatuak dituen, eta baita helburu utopiko eta transformatzailea ere.

Soziologiak tradizionalki denbora hurrengo eran banandu izan du:

- **Lan denbora:** lanean ari garen denbora da eta egiteko profesionaletatik datozen ekintza guztiak (etxean ikastea, ikastaroetara joatea...).
- **Lanerako ez den denbora:** behar biologikoetara dedikatzen diogun denbora (deskantsua, higiena, elikadura ...), konpromiso sozial saihestezinak (etxeko lana, erosketak, familia konpromisoak, ...) eta aisialdia (betebeharririk gabeko denbora, relax – era eta zaletasun pertsonaletara dedikatutako denbora -aisia).

Sailkapen honetan gizarteko kolektibo batzuk kanpoan geratzen dira, hala nola; langabezia duen pertsonak, adinduak eta haurrak. Aldi berean ez da aisialdiaren eta aisiaren artean ezberdintasunik egiten. Hori dela eta, Trilla eta Puig (1996) sailkapen berri bat proposatzen du:

- **Erabilgarri ez dagoen denbora:** Pertsonak konprometituta duten denbora (lanaldia (*jornada laboral*) edo eskolan ematen dena baita profesionalak ez diren betebeharrak ere – etxeko lana, betebeharrak sozialak eta familiakoak, oinarritzko behar biologikoak-).
- **Denbora erabilgarria:** edozeinek era autonomoan *erabili* dezakeen denbora (norberak aukeratutako betebeharrak boluntariora bezala, formakuntza, erlijioarekin lotura duten ekintzak) eta aisialdia. Aisialdiaren barruan:
 - **ASTIALDIA (denbora libre):** guk geure buruari ezarritako betebeharrak egin ondoren geratzen zaigun tartea (*un espacio temporal*), betebeharratik eta beharretatik kanpo geratzen dena

(Nuviala, Ruiz, eta García, 2003). Tarte hau indibiduoak burutu nahi dituen ekintzak aurrera eramateko erabil dezake, deskantsatzeko, ...

- **AISIALDIA (aisiaren kultura):** aisialdia erabiltzeko era positibo bat da, norbanakoak autonomoki aukeratzen duena, ekintza multzo bat da. Ez da soilik denbora libre izatea edo ekintzez betea baizik eta ekintza ezberdin horiek burutzen aske sentitzea (Nuviala, Ruiz, eta García, 2003).

Aisialdiaren barruan, aipatu den bezala, eremu ugari daude zeintzuetan burutzen diren ekintzak ezberdinak diren, helburuak eta parte – hartzaileak ere ezberdinak eta anitzak izan daitezkeen ... Eremuen artean ondorengoak aurkitu daitezke besteak beste; kirola, bidaiatzea, irakurketa, bolondres lez aritzea, margolaritza, sukaldaritza, dantza ... Aldi berean ekintza hauek bideratuta egon daitezkeen kolektiboak anitzak dira; haurrak, gazteak, hirugarren adineko pertsonak, langabezian dauden pertsonak, ezgaitasunen bat duten pertsonak, ...

Oraingoan, aisialdia haurtzaro eta nerabezeroan kokatuko dugu, eta aldi berean aisialdi taldeetan zentratuko gara.

Aipatutako kolektiboari zuzendutako aisialdi taldeak mota eta eredu ezberdinetakoak izan daitezke. Gure aztergaia eta lana aisialdi hezitzailearen eremuan kokatuko dugu, nahiz eta jakina den aisialdi beste mota batzuk ere existitzen direla, hala nola; aisialdi ludikoa.

Aisialdi hezitzaileak, bere izenak berak adierazten duen bezala helburu hezitzaile bat izanik ere, eremu ez – formalean kokatzen da. Eremu honetan ematen den hezkuntza edo hezkuntza prozesuak, eremu formalean ematen direnak bezain garrantzitsuak dira. Bi eremu hauen artean ematen den ezberdintasuna, formalak titulu edo ziurtagiri jakin batzuk lortzera bideratuta dagoela da eta ez – formala ostera, pertsonaren garapena eta beste egitura formalean ematen ez diren bestelako jakintzak helarazten ditu.

Hala ere **hezkuntza ez – formalari** dagokionez esanahi ezberdinak aurkitu daitezke:

- “La educación no formal consiste en las actividades educativas y de capacitación, estructuradas y sistemáticas, de corta duración relativa, que ofrecen agencias que buscan cambios de conducta concretos en poblaciones bastante diferenciadas” (Rolland Paulston 1972; La Belle, 1980an aipatua).

- “Se refiere a las actividades de aprendizaje que se realizan fuera del sistema educativo formalmente organizado (...) para educar con vistas a ciertos fines específicos con el respaldo de una persona, grupo y organización identificable” (Cole Brembeck 1973; La Belle, 1980an aipatua)
- “Cualquier esfuerzo educativo organizado intencional y explícito para promover el aprendizaje mediante enfoques extra – escolares, con el fin de elevar la calidad de vida.” (Reed eta besteak 1986; La Belle, 1980an aipatua).

Esanahi hauek alderdi komunak badituzte ere, Rolland Paulston (La Belle, 1980) – ek adierazten du hezkuntza ez – formala indibiduen jarrera aldaketa konkretuak bilatzen dituela. Hezkuntza ez formalak aldaketa bilatzen duela, baina aldaketa hori ez du zertan jarrera aldaketa bat izan behar. Adibidez hezkuntza ez formalaren barruan klase partikularrak sartzen dira ere, hauek hezteko intentziora badute ere ez da bilatzen pertsonaren jarreraren aldaketa bat. Kirola ere eremu honen barruan ageri da, eta honek bai balio ezberdinak barneratzen eta jarrera jakinak lantzen laguntzen badu ere, hori ez da bere helburua zehatza. Beraz, jarrera aldaketak bilatu daitezke edo ez, eta horiek konkretuak edo orokorrak izan daitezke.

Aisialdi taldeak ugariak dira eta hauen intentziora hezitzailea, ludikoa edo bestelakoa izan daiteke, nahiz eta hezkuntzaren eremu barruan ari bagara ere. Guztiz independenteak diren taldeak daude eta aldi berean, antolamendu zabalagoa duten beste batzuk ere, erakunde zabalago baten barruan daudenak hain zuzen. Oraingoan, Eskaut taldeetan zentratuko gara, zeintzuk hezkuntza eta aldaketa helburu duten.

b. Eskaut Mugimendua

Haur eta gazteei bideratutako mugimendu hezitzailea da, zein 165 herrialde eta lurraldeetan aurkitu daitekeen, guztira 30 miloi kide inguruk parte – hartzen dutelarik (haur eta gazteak, familiak, begiraleak, begirale ohiak, ...). 1908an sortu zen Ingalaterran Baden–Powell (*Robert Stephenson Smyth Lord Baden-Powell of Gilwell*) koronelak idatzitako *Escultismo para muchachos (1908)*, liburuan oinarrituta. (Baden Powell, R. 1908)

Britainiar koronel honek, bere herrialdean urte horietan ematen ari zen delinkuentziari aurre egiteko pentsatu zuen era izan zen. Metodo honen bitartez helburua gazte hauek “hiritar onak” bilakatzea zen, ekintza ludikoak aurrera eramanez helburu hezitzaileekin,

naturan eta komunitateari zerbitzuak eskainiz. Horrela giza balioak praktikan jarriz eta barneratuz.

Mugimendu honek bere jatorria eremu militarrean du, batez ere bere sortzailea militarra zelako eta praktikan jartzen zen eremua ere bera zelako. Baina bere sortzailearen hitzetan, mugimendu honek ez du helburu militar bat, nahiz eta praktikan jartzen duten pertsonetako batzuk mundu horrekin harremanetan egon:

No existe un objetivo militar en el Escultismo para Muchachos. Es verdad que el Movimiento tiene un viejo General como cabeza del mismo y un buen número de antiguos oficiales en sus filas. La razón de esto no es difícil de buscar. Hombres retirados de la Marina, del Ejército o de la Real Fuerza Aérea, a una edad más o menos joven, han encontrado esto como una forma de ocupación. Ellos son, más que otros, hombres de disposición activa, imbuidos con ideales de servicio para sus semejantes y deseosos de tomar alguna forma de trabajo útil. Por lo que no es sorprendente que entren al Movimiento Scout. (Baden Powel, 1929. 7. Kapituluua)

Eskautismoa sortu zenetik gaur egunera arte aldaketa ugariak izan ditu eta herrialdearen arabera ez da guztiz berdina izango taldeen funtzionamendua. Hala ere, guztiek esentzia eta helburu bera mantentzen dute: besteenganako eta jendartearenganako zerbitzu ideia, zein eskutik doan eskautismoaren hezkuntza formularekin **“mundua aurkitu dugun baino egoera hobek uztea”**.

Eskautismoaren helburu finala gaztek bere auto-garapena lortzea da, norberak gaitasun fisiko, intelektual, sozial eta espiritualak guztiz bermatzeko, bai indibiduo bezala, hiritar arduratsu lez eta komunitate lokaleko, nazionaleko edo internazionalako parte – hartzaile moduan. (Vallory, 2012)

Aurreko paragrafoan azaltzen da zeintzuk diren lantzen diren gaitasunak gazteen garapena lortzeko. Agerikoa da pertsonak ezaugarritzen duen elementu garrantzizko bat aipatzen ez dela, arlo emozionala delakoa. Autore horrek ez du aipatzen mugimendu honek bere jatorrien ez zuelako helburu hori bere oinarrietan, baina gaur egun gure lurraldean garatzen den mugimenduak kontuan hartzen du eta lan egiten duen haur eta gazteekin aurrera eramaten dituen ekintzetan kontuan hartzen den arloa da emozionala. Pertsonekin hezkuntza arloan lan egiten ari garenean, eta are gehiago garatze prozesuan dauden pertsonekin, pertsona osatzen duten alderdi guztiak kontuan hartu eta landu behar dira.

Eskaut mugimendua zentzu zabal eta orokor batean azaldu ondoren, gure errealitatean zentratuko gara eta ezagutzen duguna, guregandik hurbil dugun lurraldean eta eremuan oinarrituko gara mugimenduaren definizioa osatzen jarraitzeko eta ezaugarri gehiago aztertzen joateko.

c. Euskal Herriko Eskautak Bizkaia (EEB)

Mugimendu hau mundu osora zabalduta egon arren¹, ez da toki orotan era berean aurrera eramaten, nahiz eta (aurretik aipatu bezala) oinarriak eta ideologia bera izan.

Eskautismoa mugimendu hezitzailea da, zeinek hezkuntza pertsonaren hazkuntzarako bide ezinbesteko bezala ikusten duen eta baita gure jendartearen aldaketarako ere. Horrela bere egitekoa hezitzailea, eraldatzailea eta ebanjelizatzaile bezala definitzen du.

Gure herrialdean, Euskal Herrian, Euskal Herriko Eskautak (EE)² izeneko elkarte dago, zein Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako taldeak osatzen duten. Gurera gehiago hurbilduz, Bizkaian, Euskal Herriko Eskautak Bizkaia (EEB) erakundea 1956tik mundu hobe baten sorkuntzan lanean ari da. Esan bezala zabalduta dagoen mugimendu bat den heinean, gure lurraldean hainbat talde aurkitu ditzakegu erakunde honen barnean, 27 hain zuzen. Guzti hauek ideologia, metodologia eta helburu komun batzuk dituzte, ondoren laburki azalduko direnak.

Aisialdiko mugimendu hezitzaile bezala definituz, pertsona eredu bat eta jendarte eredu bat proposatzen du ondoren azalduko diren 3 aukeretan oinarrituz: Hezkuntza, Fedea eta Gizarte aukera.

i. Hezkuntza Aukera

Gizartearen aldaketa hezkuntzaren bidez egitean eta lortzean sinesten da. Ekintza hau aisialdian burutzen da, Baden Powell - ek ezarritako intuizio pedagogikoak oinarrian izanez. Horrela aisialdia hezkuntzarako eta pertsonen garapen integralerako espazio bezala ulertzen da, non pertsonak nahi duelako jarduten den, inork behartu barik eta borondatez.

¹ 30 milioi pertsona boluntario biltzen ditu, gazteentzako hezkuntza ez formaleko mugimendu ugariena izanik planeta osoan. (Vallory, E. 2012)

² Elkarte honek Bizkaiko, Arabako eta Nafarroako lurraldeak biltzen ditu. Gipuzkoako lurraldea ere honen barne egongo litzateke talderik egotekotan lurralde honetan.

Testuinguru honek pertsonaren hezkuntza prozesua bultzatzen da, alde batetik haurrak/gazteak prestutasuna agertzen duelako eta bestetik ekintza ezberdin eta ugariak egiteko aukera dagoelako:

- Ekintza dibertigarriak burutzeko espazioa.
- Aisialdi aske eta boluntarioa da.
- Errealitatearekin harreman segurua bultzatzen du.
- Berdinen arteko harremana errazten du era aske eta ez baldintzatuan.
- Balio ezberdinak lantzeko eta barneratzeko aukera ematen du: solidaritatea, justizia, elkarrizketa, errespetua, ...
- Hezitzaile gazteak daude, zeintzuk hezi gaia identifikatuta sentitzea errazten duen.

Beraz mugimendu honek bilatzen duena pertsonak libreki erabakitzeko gaitasuna izatean heztea lortzen duen **estilo pedagogikoa** bilatzen du: eredu integrala, askatzailea, aktiboa, bi – noranzkoko eta integratzailea. Hori aurrera eramateko **metodo** pedagogiko konkretu bat izatea ezinbestekoa du, zeinek ondorengo elementuak biltzen dituen:

- Ekintza erakargarriak eta progresiboa.
- Sinbologia.
- Natura.
- Talde handia – talde txikia.
- Ekintza bidezko hezkuntza. Ekintza – Gogoeta – ekintza.

Aipatutako metodo pedagogiko hau, Gizarte Hezkuntzako graduan izandako irakasgai ezberdinetan arlo pedagogikoari dagokionez ikusitako, aztertutako eta landutako metodoa da. Lan egingo dugun pertsona eta kolektiboekin ezartzen ditugun helburuak lortu ahal izateko lan modua aztertu, landu, zehaztu eta bakoitzari moldatu eta egokitu behar zaio. Baina burutuko diren ekintza horiek efektiboak izateko eskaut mugimenduak definitzen duen metodoa oinarri izatea positiboa izango da beti ere. Horrela Gizarte Hezkuntzaren arloan lan egiten ari garenean ere, kontuan hartu beharko ditugun elementuak izango dira, lagunduko gaituztenak gure lana aurrera eramaten eta guran konfiantza jarri duten pertsonen helburuak lortzen.

Esandako guztia bete daiten ziurtatzeko formakuntza, balio eta konpromisoa duten **begiraleak** daude. Eskaut metodoa martxan jartzeaz arduratzen dira eta benetan honetan

sinetsi behar dute. Gazte eta hurrekin bizitzeko nahia duten pertsonak dira, liluratzeko, jolasteko, antzemateko, hunkitzeko eta borrokatzeko grinarekin.

Eskaut mugimenduko aukera honek ordezkutzen eta adierazten duena, gizarte hezitzaileok eta gizarte hezkuntzak berak duen helburua da. Gizarte hezitzaile bezala gizarte hobe baten alde lan egiten dugu, bizi gareneko mundua hobetzean sinesten dugulako horretarako tresna hezkuntza delakoan gaudelarik. Beraz eskautismoaren lan egiteko tresna gizarte hezitzaileok dugun tresna bera da, Hezkuntza.

ii. Fede Aukera

“Euskalerriko Eskautak aisialdiaren ebanjelizatzeke Elizaren eskaintza bezala aurkezten da.” Euskalerriko Eskautak (2004). Jainkoarengan eta Jesukristorengan sinesten dute, honen presentzia egunerokotasunean lantzen delarik, errealitateko ekintzak aztertuz eta adibide eta eredu bezala hartuz. Eskautentzako Jainkoa eredu bat da, zeinek balio eta jarrera ugari erakusten dituen, geure errealitatera, unera eta gizartera aplikatu behar dira.

Fedea, Jainkoaren esperientzia bezala, otoitz eta ospakizun, konpromiso, heziketa eta eliza eta elkarte bezala biziz.

Mugimendu honek eliza eredu batean alde egiten du, jendartetik eta honen arazoetatik hurbil bizitzen dagoen elizaren alde, maitasun sakramentua den elizaren alde:

- Ebanjelioaganako leialtasunetik jarduten duen Eliza.
- Berdintasunean bizi daitezkeen pertsonenen komunitatea dena.
- Erlijioartekotasunaren aldekoa.
- Pertsona guztien zerbitzura dagoen erreinuaren eraikitzaile den eliza.
- Mugimenduan dagoena beti, zabalik eta denborak ekar ditzakeen aldaketetara moldagarria.
- Mezua iragartzen duena eta bidegabekeriak eta zapalketaz salatzen dituen eliza.

Guzti hau kontuan hartuz fedean hezteko metodo pedagogiko bat aurrera daramate, zein ondorengoan oinarritzen dena:

- Esperientzia konpartituak.
- Esperientziak gogoetatik, ebaluaketatik, testigantzatik, ospakizunetik eta konpromisotik pertsonalizatzean. Ekintza – Gogoeta – Ekintza (EGE).

Hau horrela izanda, **begiralearen** irudia garrantzi handia du zentzu honetan, bera izan behar baita eredu haur eta gazteentzako. Pertsona hau konfiantza eta hurkotasunetik

laguntzen du, bizipen erlijiosoak taldean aurrera eramanez, eskautismoaren errekurtsio propioak erabiliz eta gaztea izateak begiraleari aitortzen dizkion ezaugarriak erabiliz.

iii. Gizarte Aukera

Eskautak gizartearekin konprometituta daude, euren lemaen barruan Baden Powell – ek sandako azken hitzak hartzen dituztelarik; *“Intentad dejar este mundo un poco mejor de como os lo encontrasteis [...]”*. (Baden Powell, 1941.)³

Euskalerriko Eskautak, Euskal Herriko eremuan aritzen dira, bertan burutzen dutelarik euren ekintza hezitzailea. Herrialde honen ezaugarri kulturalak eta gizartekoak kontuan hartzen dira eta hezkuntza prozesuan lantzen diren elementuak dira. Gizartean ekin ahal izateko lehendabizi gizartea eta honen barruan dauden harremanak, inguruak, pertsonak, kolektiboak, ekintzak, sinesmenak, ohiturak, ... ezagutu eta ulertu behar dira. Ondorioz eskautentzako euren herrialdea eta euren auzoa edo herria esku – hartuko duten gunea izango dela kontuan hartuz, hau ezagutu beharra dago. Hori lantzen delarik aukera honen bitartez.

Mugimendu hau elkarlanean ere sinesten du eta horren ondorioz elkarlanean ere aritzen da beste erakunde batzuekin, zeintzuekin baloreak, jarrerak eta helburuak konpartitzen dituen. Bai erakunde zabal bezala zein talde bakoitza bere herrian edo auzoan parte – hartzen du mugimendu eta ekintza ezberdinetan.

Ondoren azaltzen direnak dira EE (euskalerriko eskautak) mugimendu hezitzaile bezala apustu egiten duen balio eta jarrerengatik: kooperazioa, solidaritatea, pluraltasuna, elkarrizketa, ezberdina denarekiko errespetua eta baita beste kulturekiko ere. Horrez gain, pertsona guztien oinarrizko beharrak asetzen dituen gizarte bat bilatzen da, atentzio berezia ezarri bazterketa egoerak edo dinamikak bizi dituztenengan.

Aukera honen barruan landu eta kontuan hartu beharreko ezaugarri ezberdinak agertzen dira:

- Natura.
- Bakerako Hezkuntza eta Gatazken ebazpena.
- Kultura eta euskara
- Kultura artekotasuna.
- Hezkuntza behar berezien integrazioa eta normalizazioa.

³ Baden Powell hil zenean, eskaut guztiei zuzendutako gutun bat aurkitu zen bere gauza pertsonalen artean. Gutun hori *“El último mensaje de Baden Powell”* izenarekin ezagutzen da.

- Baterako hezkuntza.
- Garapenerako hezkuntza.

Eskaut mugimenduak dituen hiru aukerak ezagutu ondoren esan beharra dago lotura handia dutela Gizarte Hezkuntzako eremuarekin. Izan ere, 3 aukeretako bat, Fedearen, gizarte hezitzaile izateko oinarritzko elementua ez bada ere, jakina da lan eremu honek oinarri handi bat elizan eta honi lotutako erakundeetan izan duela urteetan zehar. Hala ere, beste bi aukerak Hezkuntza eta Gizarte aukerak hezitzaileok izan behar ditugun gaitasunak eta lan tresnak definitzen dituztenaren zalantzarik ez dago.

Eskaut mugimendua aztertu ondoren, uste baino harreman handiagoa hauteman da honen eta gizarte hezkuntzaren artean. Azken hau profesio bat dela badakigu eta bai formazio zein gaitasun edo konpetentzia espezifikoak eskatzen dituela ere. Baina oinarria eta bien helburua bat da: Jendartea, mundua gure esku dagoenaren heinean aldatzen eta hobetzen saiatzea, parekidetasun, kultura artekotasun balioetan oinarrituz. Beraz eskaut mugimendua, gizarte hezkuntzak dituen eremuetako bat bezala ere ulertu daiteke, nahiz eta ez egon horrela errekonozitua.

Gizarte Hezkuntza eremuan, bai gizarte hezitzaileak profesionalen paperean eta baita boluntarioen funtzioetan ere aurkitu daitezke. Baina guztiek hezkuntzan sinetsiko dute eta aldaketari ekiteko grina izango dute. Eskaut begiraleak ezaugarritzen duten bi elementu direlarik bi hauek.

d. Eskaut Begiraleak

Hezitzaile eta arduradun eskauten **borondatezko parte** – **hartze**, nortzuk mugimenduaren benetako lidergo papera duten, ezinbestekoa da mundu osoan zehar sareak zelan funtzionatzen duen ulertzeko. Rol eta paper hauek derrigorrezkoak ez izatean eta diru – saririk ez egotean, parte – hartzea, boluntario izatearen indarrak eta konpartitzen diren balioak sortzen dituzte.

Horrela Manuel Castells – ek aipatzen duen *bezala*, “*los componentes son a la vez autónomos y dependientes de la red scout, y a menudo también son miembros de otras redes y comparten los objetivos de estas.*” (Castells, 2000:171, Vallory. 2012) 83.orrialdean aipatua). Mugimendua osatzen duten pertsonak jendartearekin konprometitutako pertsonak dira, hezkuntzan eta honen bidezko aldaketan sinesten

dutenak. Ondorioz eremu batean baino gehiagotan parte – hartzen duten pertsonak izaten dira.

Ekintza honek pertsonari jokatzeko jarrera, balio eta ereduak aitortuko dizkio: errealitatea era kritikoago batean aztertzeko, errealitate bera beste ikuspegi batetik ikusteko, bizitza sozialaren, ekonomiaren eta politikaren inguruko iritziak sortzeko ... Era honetan herritarrak sortzen doazelarik, jendarte berri bat sortzeko tresnak mugitzen eta elkar - eragiten dutelarik. Horrela, boluntarioak apaltasunez, berdinen arteko bizikidetzeta modu bat antolatzen saiatzen da.

Boluntarioak diren begirale hauek talde sentimendua dute, talde baten barruan lan egiten dutelako, honek duen ideologiarekin eta eskatzen duen konpromisoarekin. Baina norbanakoa talde bateko kide den heinean, beste hainbat talderen barruan sartuta daude, azken batean eskaut mugimendua sare bat delako, talde ezberdinak biltzen dituen: *“Los componentes son a la vez autónomos y dependientes de la red scout, y a menudo también son miembros de otras redes y comparten los objetivos de estas.”* (Manuel Castells, Vallory, 2012, 82. orrialdean aipatua) aipatuta. Aurretik aipatu bezala, mugimenduan sartuta egoteak, gizartearekin lan egiteko grina handitzen du eta bestelako erakunde, mugimendu, taldeetan, ... sartzera eramaten ditu pertsonak.

Konpromiso handia duten pertsona izan ohi dira, taldearen beharren eta eskaeren arabera, horrek ondorio asko dakartzalarik. Eremu hauetan aritzen diren pertsonak denbora tarte handiak dedikatzen dizkiote taldeari eta mugimenduari, ondorioz elkarlanean aritzen diren pertsonen artean harreman eta lotura handiak sortzen dira: *“Como una red flexible de colegas, como una familia o una comunidad, unidos por la historia, por la creencia en sus principios fundamentales, y que comparten un único e indefinible “espíritu” y una finalidad común”* (Vallory, 2012) aipatuta. Helburu berdinen baten alde, era berean lan eginda, ideologia komun batekin eta lan egiteko era berarekin aritzeak lankideak lagunak bihurtzera eramaten du, baita familia kontsideratzera ere.

e. Gizarte Hezitzailea Aisialdian

Gizarte hezitzaileak profesional bezala aritzeko eremu eta kolektibo ugari ditu: haur eta gazteak, nagusiak, 3. Adineko pertsonak, ezgaitasunen bat duten pertsonak, pertsona

etorkinak, ... besteak beste. Eremuen artean lan honen oinarria den aisialdi hezitzailea ere izan dezakegu.

Gizarte hezitzaile bezala, formazioa espezifiko dugu hezkuntza eremuan aritzeko, hori baita gure profesioaren erdigunea. Beraz aisialdiaren eremua kontuan hartu beharreko arlo bat da, bertan hainbat balio eta ezaugarri landu daitezkeelako beste edozein eremutan lantzea zailagoak direnak. Roser Battler - ek (2009) esaten du hezitzaileek aisialdietan hainbat funtzio bultzatzen dituztela:

- Parte – hartzeko demokratikorako espazioa dira.
- Giza ongizatea sustatzen dute, baita bizi kalitatea eta lurraldearen lotura ere.
- Kultura artekotasuna bultzatzen dute.
- Marjinazioa eta bazterketa egoerak prebenitzen dituzte.
- Osasuna bultzatzen du.
- Ezgaitasunak dituzten pertsonak integratzen ditu.
- Bizitza laborala, eskolakoa eta familiartekoa kontziliatzea errazten du.
- Gazteak nagusien bizitzarako ibilbidean, trantsizio bideak eta txertatze kritikorako ibilbideak antolatzen ditu.
- Eskolako pedagogia bermatzen etaosatzen du.

Eskaut taldeez ari garenean, talde lanaz ari gara. Eskaut taldeak funtzionatu dezaten begiraleak daude, begirale taldeak, pertsona hauek elkarren artean lan egiten dute, guztion iritzia baloratuz, esperientziak eta funtsezkoa dena berdintasuna egoera batean egonda. Elkarlana ematen da, bakoitzak bere jakintzetatik eman dezakeena helarazten du. Gizarte hezitzaileak ere, gizarte hezkuntzaren eremuan ari garelarik, elkarlanean aritzen dira, profesional ezberdinekin zein beste gizarte hezitzaile batzuekin ere; diziplina arteko lana ematen delarik. Alderdi hau garrantzi handia du, zeren ikuspegi berriak edo ezberdinak ezagutzea, lan egiteko modu berriak, ... beti da aberasgarria eta lagungarria.

2. MARKO ENPIRIKOA

Eskaut begiraleen profilaren inguruan ikerketa txiki bat aurrera eraman dut Bizkaiko eremuan mugatzen dudalarik.

a. Helburu orokorra

Bizkaian dauden eskaut taldeetako begiraleen profila aztertzea.

b. Aztertuko diren elementuak

Eskaut begirale hauen profila aztertzeko ondoren agertzen diren elementu ezberdinak aztertu egingo dira:

1. Sexua
2. Adina
3. Ikasketak/ Lana
4. Eskaut taldean zenbat urte daramatzaten.
5. Noiz eta zergatik hasi ziren eskaut taldean.
6. Begirale izateko pertsona hauen motibazioa.
7. Eskaut ideologiaren 3 aukerekiko iritzia.
8. Zaletasunak.
 - Aisialdia zertara dedikatzen duten.
 - Zein ekintzak egitea gustuko duten.
9. Begirale lanari eskaintzen dizkioten orduak.
10. Eskaut begiraleak izan behar dituzten ezaugarriak (5).
11. Formazioaren inguruan duten iritzia.
12. Gizartearekiko duten konpromisoa.
13. Beste ezer gehitzeko.

c. Informazioa biltzeko tresna

Ikerketa txiki hau aurrera eraman ahal izateko, gure helburua izango den hori lortzeko eranskinetan agertzen den 14 galderetako osatu dudan galdetegia erabiliko da. Galdetegi honetan aztertuko diren datu batzuk kuantitatiboak izango dira, beste batzuk ordez informazio kualitatiboa jasoko dute.

d. Populazioa eta Lagina

Ikerketa honetan, aurretik zehaztu izan den bezala populazioa 2013 – 2014 ikasturtean zehar Bizkaiko eskaut taldeetan begirale lez ari diren pertsonak izango dira. Euskalerriko Eskautak Bizkaiak helarazitako datuen arabera 296 begirale⁴.

Ikerketa aurrera eramateko hautatuko lagina errepresentagarria izango da, ondorioz zoriz hautatuko dira galdetegia erantzungo duten pertsonak. Ikerketa burutzeko kolektibo osoaren Begirale kopuru honetatik 166 emakumezkoak dira, hau da; %56.1a eta 130 gizonezkoak, hau da; %43.92a.

Ikerketa aurrera eramateko hautatuko lagina errepresentagarria izango da, ondorioz zoriz hautatuko dira galdetegia erantzungo duten pertsonak. Ikerketa burutzeko kolektibo osoaren %10a hautatu egin da, hau da 30 pertsona.

Bizkaiko taldeak zonaldeetan banatuta daude, lau zonaldeetan hain zuzen ere: Herri Aldea, Eskuinaldea, Ezker – Mehatz Aldea eta Bilbo Erdia. Zonalde bakoitzean dauden talde eta begirale kopurua ezberdina da, ondorioz portzentaje horiek kontuan hartuz galdetegi kopuru ezberdinak banatu izan dira zonalde bakoitzean.

Herri Aldean, 5 talde daude zeintzuk guztira 78 begirale dituzten, hau da begiraleen %26,35. Ondorioz, zonalde honetako 6 begiraleri helarazi zaio galdetegia.

Eskuinaldean, 7 talde daude zeintzuk guztira 73 begirale dituzten, hau da begirale kopuru osoaren %24,66. Ondorioz, zonalde honetako 6 begiraleri helarazi zaio galdetegia.

Ezker – Mehatz Aldean, 10 talde daude zeintzuk guztira 85 begirale dituzten, hau da begirale kopuru osoaren %28,7. Ondorioz, zonalde honetako 7 begiraleri helarazi zaio galdetegia.

Bilbo Erdian, 5 talde daude zeintzuk guztira 65 begirale dituzten, hau da begirale kopuru osoaren %21,96. Ondorioz, zonalde honetako 5 begiraleri helarazi zaio galdetegia.

⁴ EEB 2013 – 2014 kurtsoko errolda.

Esan bezala lan egingo dugun lagina 30 pertsonakoa izan da, portzentajeekin lan egin ondoren 31 pertsonekin aritzea erabaki da. Beraz galdetegi 31 pertsonari helarazi zaio, 31 galdetegi jaso direlarik.

e. Prozedura

Ikerketa deskriptibo hau aurrera eramateko erabilitako tresna galdetegi izan da, esan bezala. Galdetegi honetan zehaztutako galderak irekiak izango dira, hauek aukera ematen dutelako erantzuten ari diren pertsonak pentsatzen dutena askatasun handiagoz adieraztea. Askatasun horrek informazio gehiago biltzeko aukera ematen du eta ikertzen ari diren elementuen inguruan jasotzen den informazioa ere mamitsuagoa eta aberasgarriagoa izatea ere.

Galdetegiak zonaldearen arabera pertsona bateri edo biri korreo elektronikoaren bitartez helarazi zaie. Pertsona hauek eskaut talde ezberdinetako begiraleak dira eta euren taldeetan eta zonaldeko beste taldeetako eskaut begiraleei banatzeko ardura hartu izan dute.

i. Datuen azterketa

Behin galdetegiak jasota izaterakoan, hauetan azaltzen diren datuen bilketa eta azterketari ekin izan zaio. Horretarako, galdetegi guztiak irakurri izan dira, galdera guztiak erantzunda zeuden edo ez jakiteko, erantzunen ideia orokor bat izateko eta galdetegi ulergarria izan den konprobatzeko.

Ondoren galderaz galdera, banan – banan irakurtzen eta agertzen diren datuen sailkapenari ekin izan zaio. Horrela galdera bakoitzaren barruan erantzun mota ezberdinak agertu direlarik.

Datu kuantitatiboak funtsezko estatistiko arruntekin tratatuko dira; datu kualitatiboak, ordez, lantzeko metodologi kualitatiboa erabiliko da, konkretuki jasotako informazioa irakurri ondoren sortuko dien kategorietan antolatuko da.

f. Emaitzak

Atal honetan, galdetegiak aztertu ondoren jasotako informazioa adieraziko da. Aurreko ataletan aipatu den bezalaxe informazioa 12 elementu ezberdinetan sailkatu izan da, elementu batzuk kuantitatiboak izango direlarik soilik eta beste batzuk bai kualitatiboak zein kuantitatiboak.

1. SEXUA

Galdetegia erantzun duten %58.06a emakumezkoak izan dira, hau da 18 emakumezkoen erantzunak ditugu. Gainontzeko %41.94a gizonezkoek erantzundakoak izan dira, hau da 13 gizonak.

Proporzio hau Bizkaian dagoen errealitatearekin bat datorrela antzeman daiteke, aurretik aipatu ditugun portzentajeekin alderatuz gero ikus dezakegu ezberdintasuna antzerakoa dela:

EEB – ren datuak

- %56.10 emakumezkoak eta %43.92 gizonezkoak → 12.18 puntuko ezberdintasuna.

Galdetegia erantzun duten pertsonak:

- %58.06 emakumezkoak eta %41.94 gizonezkoak → 16.12 puntuko ezberdintasuna.

Beraz galdetegiarekin lortutako emaitzak populazio osoaren errepresentagarriak dira, eskaut mugimendua osatzen duten begiraleen sexuari begira.

2. ADINA

Bizkaian eskaut mugimenduan dauden begiraleen adina 19 – 28 urte bitartekoa da, gure lagin erakusgarriak adierazten duen bezala:

- 19 – 21 urte bitartean: %45.16a.
- **22 – 24 urte bitartean: %48.4a.**
- 25 urtetik aurrera: %6.45a.

Jasotako datuek adierazten duten bezala Bizkaiko eskaut mugimendua aurrera eramaten duten begiraleen %93.56a 19 eta 24 urte bitartean dituzte. Beraz esan dezakegu mugimendua aurrera eramaten duten pertsonak gazteak direla.

3. IKASKETAK/ LANA

Elementu honen barruan atal ezberdinak adieraziko dira, alde batetik begiraleak ikasten edo lanean ari diren, edo bi ekintzak aldi berean egiten dituzten. Horrez gain zein ikasketa burutu diren ere aztertu egin da eta azkenik lanean ari diren pertsonak zein lan edo enplegu duten.

- **%61.3a ikasten ari da.**
- %12.9a lanean ari da, soldatapeko enplegu bat dute.
- %22.58a ikasten ari da eta baita soldatapeko lanean ere.
- %3.23a langabezia dago.

Datuetan adierazten den bezala, begiraleen gehiengoa ikasten ari da gaur egun, baina galdetegia erantzundako pertsona guztiek arloren batean espezializatutako ikasketak burutu izan ditu, bai unibertsitarioak zein goi mailako edo erdi mailako graduren bat. Aldi berean, %22.58ak ikasketa bat baino gehiago burutu izan ditu. Horren barruan masterrak ere aurkitu ditzakegarik, besteak beste. Ondoren burututako ikasketa horiek arlotan sailkatuta adieraziko dira:

- Arteak: %6.45a.
- Humanitateak: %3.23a.
- Zientziak: %3.23a.
- Osasun Zientziak: %16.13a.
- **Giza Zientziak: %70.97a.**
- Zientzia Juridikoak: %3.23a.
- Ingeniaritza: %12.9a.

Portzentajeek adierazten duten bezala inkestatutakoen gehiengoak gizartearekin eta hezkuntzarekin harremana duten ikasketak burutu dituzte, hezkuntzarekin harremana dutenak gehiengoa direlarik. Ondoren Giza Zientzien barruan burutu izan diren ikasketak adieraziko dira:

- **Gizarte Hezkuntza Gradua: %31.81a.**
- Gizarte Langintza Gradua: %18.18a.
- Lehen Hezkuntza Gradua: %18.18a.
- Haur Hezkuntza Gradua: %4.54a.
- Hezkuntza Berezia: %4.54a.
- Gizarte Integrazioa Goi mailako zikloa: %13.63a.
- Gorputz eta Kirol Jardueren Animazioa, Goi mailako Zikloa: %4.54a.
- Psikopedagogia: %4.54a.

Beraz ikus daitekeen bezala Bizkaiko Eskaut Mugimendua aurrera eramaten duten begiraleen gehiengoa arlo profesionalean ere hezkuntzaren munduarekin harremana izateko prestatzen ari dira edo prestatu izan dira.

Ikasketez gain, esan bezala, %35.48a lanean ari da:

- Hezkuntza eremuan, formala zein ez formala eta gizarte arloan: **%72.72a.**

- Bestelakoak: %27.27a.

Atal honetan ere antzeman daiteke, lanean ari diren pertsona horietako portzentaje altu bat gizarte erantzukizun bat dutela, eta baita hezkuntzan sinesten dutela antzeman daiteke.

4. ESKAUT TALDEAN ZENBAT URTE DARAMATZATEN.

Gure lurraldean eskaut mugimendua aurrera atera dadin ziurtatzen duten begiraleak taldean sartzeko arrazoi ezberdinak izan dituztela konprobatu ahal izan dugu galdetegia aztertu ondoren. Aldi berean euren eskaut taldeetan urte kopuru ezberdina daramaten begiraleak aurkitu ditzakegu:

- 1 eta 3 urte bitartean: %19.35a.
- 4 eta 6 urte bitartean: %12.9a.
- 7 eta 9 urte bitartean: %22.58a.
- 10 eta 12 urte bitartean: %12.9a.
- **13 eta 15 urte bitartean: %25.8a.**
- 16 urtetik aurrera: %6.45a.

Datuetan adierazten den bezala, eta galdetegian jasotako erantzun ezberdinek baieztatzen duten bezala, begirale diren pertsona hauen gehiengoa taldean hazi eta hezi egin da.

“[...] gustatzen zaidalako eskautismoaren bizimodua, nire bizitza izan delako eta taldearen barruan hasi eta hezi naizelako hein handi batean.”

“Taldea nire bizitzaren zati oso garrantzitsua izan da, pertsona moduan hezten lagundu nau [...]”

5. NOIZ ETA ZERGATIK HASI ZIREN ESKAUT TALDEAN.

Aurreko elementuak adierazten duen bezala, eskaut begiraleak urte kopuru ezberdina daramate taldean, bai haur bezala zein begirale funtzioak betetzen. Elementu honetan adieraziko da zenbat urterekin hasi zuten euren prozesua taldean haur bezala hasi ziren edo begirale moduan ezagutu zuten taldea lehenengoz. Horrez gain eskaut taldean hasteko inkestatuak zein arrazoi ezberdin izan dituzten azalduko da.

Zenbat urterekin hasi ziren eskaut taldean:

- **6 – 9 urte bitartean: %38.71a.**
- 10 - 12 urte bitartean: %12.9a.

- 13 - 15 urte bitartean: %16.13a.
- 16 - 18 urte bitartean: %19.35a.
- 19 urtetik aurrera: %12.9a.

Hasteko esan beharra dago hiru multzotan banatuko direla begiraleak: haur bezala hasi direnak taldean; haur izan direnak eskaut talde batean, taldea utzi dutenak eta begirale bezala hasi direnak ondoren eta azkenik begirale lez hasi dutenak euren bidea eskauten munduan.

- **Umeak izan dira eskaut taldean: %67.74a.**
- Begirale lez hasi dira eskaut taldean: %22.58a
- Ume izanik eskaut taldean egon, utzi eta begirale lez berriro sartu: %9.68a.

6. ESKAUT BEGIRALE IZATEKO PERTSONA HAUEN MOTIBAZIOA.

Atal honetan taldean haur izandako pertsonen motibazioa eskaut begirale izateko aztertuko da. Eskaut taldean begirale lez hasi izandako pertsonen motibazioa aurreko elementuan adierazten da, azken batean taldean hasi izatearen arrazoia eskaut taldean hasteko motibazioa delako.

Pertsona bakoitzak taldean egoteko motibazio eta arrazoi ezberdinak adierazi izan ditu galdera honetan:

- **Eskaut taldean egotearen esperientzia eta zor sentimendua: %80.95a.**
- Pertsonaren interes pertsonalak, onura pertsonalak: %47.62a.
- Gizarte erantzukizuna: %60.9a.

Portzentajeek adierazten duten bezala, taldean hazi eta hezi diren pertsonak eskaut taldearekiko duten sentimendua altua da. Izan ere 6 – 9 urte bitartean eskaut taldean prozesu bat hasi izan duten pertsonak euren bizitzaren ia bi heren eman izan dituzte taldean, bertan heziz eta eremu honetan jasotako eta bizitako esperientziak markatu izan dutelarik pertsona hauen bidea. Nagusiagoak izanda eskaut bilakatu direnak ere bizitzaren heren bat eman izan dute talde barruan. Eskaut begirale hauetako askok azaltzen dute euren bizitza ezin irudikatu dezaketela taldean egon gabe edo eskauta izan gabe. 3. Eranskinetan, pertsona hauek esandakoak, eta atal honetako informazio gehiago kontsultatu daiteke.

7. ESKAUT IDEOLOGIAREN 3 AUKEREKIKO IRITZIA.

Marko teorikoan azaldu izan den beza, eskautek 3 aukera dituzte euren idearioan, zeintzuk aurrera eramaten dituzten ekintzetan presente dituzten eta hauek jarraituz lan egiten duten haur eta gazteen hezkuntzan. 3 aukera hauek: Heziketa, Gizartea eta Fedea dira.

Eskaut begiraleek zein iritzi duten 3 aukera hauekiko adieraziko da ondoren:

- **Adostasun osoa aukerekiko: %80.64a.**
- Fedea aukeran zalantzak: %19.35a.

Portzentajeek adierazten duten bezala, ehuneko oso altu batek, oso argi ditu zeintzuk diren eskaut mugimendu kristauaren 3 aukerak eta hauekiko adostasun osoa adierazten dute.

“Personalmente creo que este movimiento en el que estamos involucrados no tiene cabida a personas que no apuestan por la unidad de las tres opciones. No entiendo como un monitor puede educar en algo que no cree.”

Nahiz eta hiru aukerak propietzat sentitzen duten inkestaturen %80.64ak, multzo honen barruan iritzi ezberdinak ere agertzen dira. Hiru aukerak maila berean badaude ere, errealitatean askotan modu eta indar ezberdinarekin lantzen direla adieraziz, edota aukeraren bat bizitzen dugun unera moldatu behar dela esanez:

“[...] fedearen aukeraren inguruan berrikuntzak eta moldakuntzak egin ahal direla uste dudan arren, baina bai hirurak oso garrantzitsuak eta nahitaezkoak direla uste dut.”

Hala ere, aurreko portzentajeek adierazten duten bezala, mugimenduan begiraleak diren pertsona hauen artean aukeretakoren batean nolabaiteko zalantzak edo zailtasunak dituela adierazten dutenak ere badaude. Zalantza hauek Fedea aukeraren ingurukoak dira.

“[...] Pero Fedea es la que más me cuesta llevar tonto a mí como persona como con los chavales, a la hora de hacer actividades o celebraciones.”

4.eranskinean, atal honetan lortutako datu eta azalpen gehiago kontsultatu daitezke.

8. ZALETASUNAK.

Eskaut taldeetan begirale diren pertsona hauek, begirale izatearen ekintza edo lan hori euren zaletasunen artean sartzen dute, aisialdiko ekintza bezala definitzen dute. Azken batean aisialdi ezberdin bat eskaintzeaz gain, begirale izatean, bizi ere egiten da.

Pertsona hauek, galdetegiak aztertzen aritzean ikus daitekeen bezala, gizartearekin konpromiso bat duten pertsonak direla argi geratzen da. Baina euren begirale lanaz gain bestelako zaletasunak eta konpromisoak ere dituzte.

a. AISIALDIA ZERTARA DEDIKATZEN DUTEN.

- **Kirola: %51.61a.**
- Zinema, irakurketa, ... : %45.16a.
- Beste erakunde edo ekimen sozialetan parte hartze aktiboa: %25.8a.
- Natura, mendiaz, aire libreaz gozatzea, ...: %25.8a.
- Musika, dantza eta margotzea: %19.35a.
- Eskaut Taldea soilik: %9.68a.
- Ikasketa eta formakuntza ezberdinak burutu: %6.45a.
- Bidaiatu: %6.45a.

Nahiz eta portzentajeek adierazten duten bezala, pertsona hauen gehiengoak euren denbora beste ekintza batzuk betetzeko erabiltzen badute ere asko dira esaten dutenak denbora kontuen ondorioz ezin egin eta burutu ditzaketela gustuko duten beste hainbat ekintza.

"[...] me gusta llevarme ese <<ser eskaut>> a mi día a día intentado no dejar el SERVIR solo a los momentos en los que estoy en el grupo."

b. ZALETASUNAK, IKASKETAK/LANA ETA ESKAUT TALDEA BATERATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN.

Ondorengo elementuan adieraziko den bezala, eskaut begiraleek euren eskaut taldeari dedikatzen dioten denbora dela eta euren zaletasunak eta eguneroko bizitzako bestelako ekintzak aurrera eramateko zailtasunak aurkitzen dituzten askotan.

- Zailtasunak guztia bateratzeko: %64.52a.
- Zailtasunik ez ekintza ezberdinak bateratzeko: %35.48a.

Zailtasunak ez dituztenek adierazten dute, efortsuarekin eta antolatuz gero burutu nahi diren ekintzak aurrera eramateko ez dagoela arazorik, gauza bakoitzerako unea bilatu behar dela.

“Yo no diría que son dificultades, pero normalmente al tener tantos compromisos en diferentes cosas, uno no llega a todo.”

“[...] Si de verdad te gusta y te motiva lo que haces, la organización resulta más sencilla.”

Eskaut taldeetan begiraleak diren pertsona hauek, euren bizitza espazio eta zaletasun ezberdinetara dedikatzen dute, gizartean aktiboak dira hein handi batean. Horrela nahiz eta inkestatutakoen portzentaje txikiago batek ekintza guzti horietan parte – hartzeko zailtasunik ez duela adierazten badu ere, %64.52ak zailtasunak izan ohi dituela adierazi du. Pertsona hauek esaten dute euren denbora librearen zati handiena taldeko kontuekin betetzen dituztela, taldea ondo funtziona dadin denbora asko dedikatu behar baitzaio. Baina nahiz eta askotan zerbait bidean utzi behar izan taldea lehen posizioan jartzen dute, lehentasun bat izanik.

“En el momento en el que te motiva hacer cosas para el grupo y las priorizas frente a los estudios sí que perjudica.”

“Para los eskaut y los y las chavales siempre se saca tiempo de donde se puede.”

“Bizitza moldatzen Joan naiz taldean sartu nintzenetik.”

Eskaut talde ezberdinetan begirale diren pertsonak, taldetik kanpoko konpromisoak eta ekintzak alde batera utzi izan dituzte taldeari behar duen denbora dedikatu ahal izateko eta begirale lanarekin jarraitzeko. Nahiz eta baieztatzen duten *“oso neketsua da eta askotan egin beharreko efortsua handia ere”*, eskaut begirale izateari ez diote uzten.

9. BEGIRALE LANARI ESKAINTZEN DIZKIOTEN ORDUAK.

Nahiz eta elementu hau aztertzeke erabili izan den galdera ulertzeko erraza izan eta eskatzen zen erantzuna baita zehatza ere, jasotako galdetegi batek ere ez du eskatutakoa zehaztasunez bete.

Hala ere, galdetegia erantzundako pertsona guztiek erantzun izan dute galdera hau modu batean edo beste batean, datu zehatzagoak eman ez hain zehatzak.

Aipatu beharra dago datu garrantzitsu bezala, behin erantzunak aztertu eta interpretatu ondoren, eskaut begirale hauetako bat bera ere ez duela inoiz kalkulatu urtean eskaut

talde bateko begirale izateari dedikatzen dizkioten orduak. Honekin batera gehiengo batek ezinezkotzat definitzen du ordu kopurua kalkulatzeko.

“Es imposible decir un número exacto. [...], y luego todo el tiempo que le dedicamos de forma indirecta (pensar actividades, reuniones extra, preparación de días especiales, preparación de campamento y colonias, comisiones,...”

“Buff ezinezkoa egiten zait kalkulatzeko, ASKO”

“Es imposible calcularlo. [...]”

%22.58ak ez du kalkulurik burutu, ezta ordu kopururik adierazi ere.

%64.52ak zenbait datu adierazten ditu baina ezer zehatzik ez. Astean gutxi gora – beherako ordu kopurua adierazten du, baina kalkulu zehatzik egin gabe. Batzuek ere urtean zenbat ordu ematen dituztenaren kopuru bat adierazten dute, baina erantzunean azaltzen dute kalkulu zehatzik egin ez dutela eta inoiz kalkulatu ez duten zerbait dela. Ondoren azaltzen dira erantzunetan ematen diren datuak:

- 5, 6 eta 7 ordu astean ematen dituztenak daude, horiei bestelako ekintzak gehitu behar zaizkielarik, hala nola; irteerak, bizikidetzak, kanpamentuak, ... eta bestelakoak.
- Minimo astean 5 ordu ematen dituzte taldearen ekintzetarako.
- Urtean 500 – 600 ordu inguru erraz joan daitezkeela adierazten da.

Honekin batera azaltzen da baita ere, taldean barruan pertsona bakoitzak izan dezakeen karguaren edota erantzukizun mailaren arabera taldeari dedikatzen dizkion ordu kopuruak ezberdinak izango direla. Konpromisoak pisua duelarik gai honi dagokionez.

Lau pertsonak bakarrik, hau da %12.9ak, azaltzen du ordu kopuru zehatzago bat, nahiz eta hauek ere ez duten galdera osotasunean erantzun. Pertsona hauek urtean zehar zein ekintza burutzen dituzten, taldearekin zerikusia dutenak azaldu dituzte. Ordu kopuruak ez dira zehazten kasu guztietan, batean baino ez: pertsona honek betetzen dituen ekintzak azaldu ditu ondoan ordu kopurua adieraziz, guztiak gehituz urtean 624 ordu ematen dituela taldeari adierazten da.

Beste hiru kasuetan, astean zehar, zein kurtsoan parte – hartzen duten ekintzak azaltzen dituzte, baina ordu kopururik ez da agertzen.

Eskaut begirale batek, Bizkaian, urtean dituen ekintza ezberdinak 2. eranskinean zerrendatuta agertzen dira.

10. ESKAUT BEGIRALEAK IZAN BEHAR DITUZTEN EZAUGARRIAK.

Eskaut begiralearen profilaren elementu hau osatzeko, galdera ireki bat planteatu izan da, zeinetan erantzun eta ezaugarri ezberdinak jaso ahal izan diren. Guztira 74 ezaugarri ezberdin jaso ahal izan dira, batzuk errepikatuta egon baitira. Ondoren, gehien errepikatu izan diren bost ezaugarriak adieraziko dira, azken posizioan ezaugarri bat baino gehiago agertuko dira, hauek kantitate berean errepikatu izan baitira:

1. Konpromisoa: %45.16ak.
2. Erantzulea/ arduratsua: %29.03ak.
3. Kritikoa: %29.03ak.
4. Aktiboak: %22.58ak.
5. Alaiak: %16.13ak. /Motibazioarekin: %16.13ak./ Pazientzia: %16.13ak.

Hauek izan badira ere gehien errepikatu izan diren ezaugarriak, beste hainbat ere agertu izan dira, multzoetan sailkatu izan direlarik argiago ikusteko zein ezaugarri diren eskaut begiraleak izan behar dituztenak inkestatutakoen arabera.

Esan bezala ezaugarri hauek multzokatu egin dira, 5 multzoetan hain zuzen:

1. Gaitasunak.
2. Balioak
3. Formazioa.
4. Jarrerak.
5. Funtzioak.

Ezaugarrien gehiengoa “Gaitasunak” eta “Jarrerak” multzoetan sailkatuak izan dira. Multzo bakoitzean ageri izan diren ezaugarriak zeintzuk diren jakiteko, 2. Eranskina kontsultatu, bertan ezaugarrien sailkapen osoa ikus daiteke.

11. FORMAKUNTZAREN INGURUAN DUTEN IRITZIA.

Inkestatutakoen %100ak uste du etengabeko formazioa ezinbestekoa dela mugimendu honetan lan egiten duten pertsonentzako. Ondoren etengabeko formakuntzaren zergatia eta zein helbururekin adierazten duten inkestatuak adieraziko da:

- Haur eta gazteen beharrei erantzun bat eman ahal izateko: %38.71a.
- Bizi gareneko testuingurua etengabe aldatzen doa, ondorioz hauei egokitzea beharrezkoa da, haur eta gazteengana heldu ahal izateko: %58.06a. Egokitzapen honetan, metodologiaren moldaketa, prozesuen eta ekintzen aldaketa proposatzen dira.

- Haur eta gazteei kalitatezko prozesu hezitzaile bat eskaini ahal izateko: %16.3a.

Garrantzitsuak diren beste ideia batzuk ere agertzen eta komentatzen dira:

“[...] una persona que no sigue formándose se estanca, y por lo tanto se desmotiva, además se deja llevar por <<lo que siempre ha hecho>> y la realidad de los grupos va cambiando continuamente, y también las necesidades.”

Pertsona aktibo eta motibatuta mantentzeko tresna bezala ikusten da baita ere etengabeko formazioa bezala. Honekin batera esperientziaren garrantzia ere nabarmendu izan du inkestaturen batek:

“[...] uste dut hezteko eta azken ginean, umeein egoteko, formatuak egon behar garela, baina denborak eta esperientziak ere bere pisua izango du. Horregatik, hainbat urte aktibo taldean egon ostean, formatuz baino, gainerakoekin esperientziak partekatuz gehiago ikasi dugulakoan nago.”

12. GIZARTEAREKIKO DUTEN KONPROMISOA.

Gizartearekiko duten konpromisoaren inguruan, balorazio ezberdinak badaude ere, ondorengo portzentajeek adierazten dute eskaut begirale hauek gizarte erantzukizun handia dutela uste dutela:

- 1 (oso txikia): %0a
- 2 (txikia): %0a
- 3 (nahiko): %19.35a.
- **4 (handia): %70.97a.**
- 5 (oso handia): %9.68a.

Eskaut mugimenduan begirale diren pertsona hauek, maila ezberdinetan bada ere, gizartearekin konpromiso bat dute eta datuek adierazten duten bezala konpromiso garrantzitsua eta altua.

13. BESTE EZER GEHITZEKO.

Atal honetan agertutako erantzunak, eranskinetan aurkitu ahal dira, 7.eranskinean hain zuzen ere.

3. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Eskaut mugimendua, mundu mailan garrantzi handia eta indarra duen mugimendu hezitzailea da, aisialdian murgilduta dagoena eta milioika pertsona batzen dituen bere inguruan. Gure lurraldeari dagokionez, mugimendu hau aurrera ateratzen duten pertsonak oso gazteak direla ondorioztatu dezakegu, jasotako datuak ikusi eta aztertu ondoren. Zer esan nahi du honek? Mugimendu honetan murgilduta dauden gazte hauek eta urtean zehar hainbat ekintza aurrera ateratzen dituztenak, gaitasun handiak dituzten pertsonak direla. Zergatik? Erantzukizun maila altua hartzea suposatzen duelako eskaut begirale izatea eta zure ardurapean adin ezberdinetako 20 edo 60 haur izatea. Lan handia egin behar delako gazte hauek balio batzuetan hezteko eta jarrera jakinak transmititzeko. Hainbat ekintza konplexu aurrera ateratzeko eta erabaki garrantzitsuek hartzeko ere gaitua egon behar da. Honekin batera talde bat aurrera eramaten ari garenean, bakarrik ez gaudela ere azpimarratzea ez da gehiegizkoa, talde lanean aritzen gara, iritzi, motibazio eta nahi ezberdinak dituzten pertsonekin lanean ari gara. Horregatik pertsona hauen gaztetasuna kontuan hartzea eta azpimarratzea garrantzi handia duelakoan nago. Badaude eskaut taldeak, zeintzuen euren begiraleen batez besteko adinak ez ditu 24 urteak gainditzen. Gazteok gaitasun handiak ditugu, eta sinesten dugun zerbaiten inguruan ari bagara, eskaut begiraleontzako eskaut mugimendua, are gehiago. Azken batean guztiak helburu berdin baten alde egiten ari gara. Gazteak izatea, ezaugarri xume horrek, gaitasun jakinak ematen dizkigu, zeintzuk denborarekin galdu ditzakegun edo mantendu, hala nola; hunkitzeko eta ilusioa izateko gaitasuna.

“Uste dut egiten dugun lana, askotan ez dela ikusten eta ez dela antzematen. Benetan egiten dugun guztian sinetsi behar dugula uste dut, bide onetik goazelako.”

Eskaut begirale izateak, gizartearekin konpromiso bat izatea dakar, jasotako ~~gaitasun~~ erantzunak erakusten duten bezala. Eskaut begirale gazte hauek euren gizartearekiko konpromisoa altutzat ebaluatu dute eta hala dela esan daiteke arrazoi ezberdinak direla eta.

Alde batetik begiraleak eskaut taldeari eta taldeko haur eta gazteei euren bizitzatik dedikatzen dioten denbora eta ordu kopuruak oso altuak dira. Horren atzean aldaketaren aldeko sinesmena ezkututzen da eta konpromiso handia ere. Bestetik eskaut taldean egoteaz gain, inkestatutakoen portzentaje altu batek azaldu du bestelako ekintza eta ekimen sozialetan parte – hartzen duela, eta hala ez denean, denbora faltaren ondorioz

izaten dela askotan. Taldean ikasten eta lantzen duten konpromisoa euren bizitza pertsonalera eramaten dute eta euren inguruko beste espazio eta uneetan aurrera eramaten dituzte ekintza sozialak. Aldi berean beste ehuneko handi batek naturarekiko sentimendu garrantzitsu bat adierazten du, zein taldean ere lantzen den, eta honen alde egiten den.

“Para mi ser monitor eskaut es mucho más que una metodología educativa, es un estilo de vida. El ritmo de vida que llevamos actualmente la sociedad hace que cada vez nos olvidemos más de los demás y del medio natural, el origen de todo y de todos. Por ello creo que el modelo de vida eskaut es en cierto modo una vuelta a los orígenes, conectar con la vida y con la gente, lejos de la sociedad que nos envilece y nos hace cada vez más competitivos/as y en consecuencia, destructivos/as.”

Eskaut begirale diren pertsona hauen %38.71a euren bizitzaren erdia baino gehiago eman dute eskaut taldearen kide izaten, honek sortzen duen taldearen kide izatearen sentimendua kontuan izanik. Eskaut begirale hauek, eta baita beranduago hasi izan dutenak prozesu bat taldean (inoiz ez baita berandu eskauta izateko) euren bizitza talderik gabe irudikatzea zaila egiten zaie oso, bizitzako parte garrantzitsu bat baita taldea. Esan dugun bezala urtean zehar ordu kopuru handiak dedikatzen dizkiogu mugimenduari begirale garenok eta horri uko egitea zaila izaten da. Honekin batera, atentzioa deitzen du inkesta erantzun izan duten pertsonen baiezatzeari inoiz kalkulatu ez dituztela kurtso batean taldean egiten dituzten ordu kopurua. Galdetegiak aztertu eta hausnartu ondoren, ahalik eta kalkulu zehatzenak egin izan ditut kurtso normal batean nire eskaut taldean sartzen ditudan orduak kalkulatzeko, lortutako emaitza 900 ordu ingurukoa izan da. Emaitza oso altua da, baina egia da oso zaila dela kalkulatzeko eta orduak bidetik geratu zaizkidalakoan nago, ziur asko. Hala ere, garrantzi handi du azpimarratzea mugimenduan murgilduta dauden pertsona hauek orduak inoiz kalkulatu ez izatea esan nahi duela gustura aritzen direla honetan, ardura inportante bat bezala hartzen dutela eta pertsona bezala eurentzako garrantzi handia duen zerbait dela.

“Taldean ez dauden pertsonen askotan ez dute ulertzen taldearekiko zein gizartearekiko konpromiso bat dela.”

“[...], arazoak lagunekin erlazionatuta daude gehienbat.”

Askotan, eskaut begirale garenok, horrenbeste ordu dedikatzea mundu honi arazoak ekarri diezaguke. Zergatik? Lagunekin egoteko denbora batzuetan sakrifikatzen dugulako taldea aurrea ateratzeko, ekintza bat aurrera eramateko, ... edota ikasketei behar baino ordu pare bat gutxiago dedikatzen dizkiogu hurrengo astean taldean ekintza jakin bat emango delako eta hori prestatu behar delako. Gertatzen dena askotan, taldeari dedikatzen zaion deborak “efortsu” gutxiago suposatzen duela sentitzen dugula eta

gusturago egiten dugula. Baina honen barruan ez dagoen norbait, hau guztia bizi ez duen norbaitek zaila du ulertzea eskaut begirale izateak suposatzen eta eskatzen duen dedikazioa, eta eskautok emateko prest gaudela. Azken batean gure denbora ematen dugu sinesten dugun horretan, inongo onura materialik jaso gabe, eta gizarte materialista honetan hau ulertzea ez da zerbait erreza.

Eskaut taldeetan aipaturiko balio garrantzitsuak erakusten eta praktikatzen dira, haur eta gazteak esperientziatik eta bizipenetatik ikasteko. Hau delarik lan egiteko metodoa, egitetik ikasi, praktikan jartzetik, ikustetik eta prozesuaren protagonista izanik.

“Uste dut hiruren arteko konbinaketa ezinbestekoa dela. Alde batetik, gizartearentzako sortutako mugimendua delako eta hori gabe, egiten duguna ez lukeelako zentzurik izango. Beste alde batetik, Jesus dugulako erreferentzia eta, beraz, fedea sentitzea eta bizitzea beharrezkoa da gainerakoei transmititzeko. Azkenik prozesu guztia burutzeko eta gure bizitzan orokorrean etengabeko prestakuntza izatea oso garrantzitsua delako.”

Inkestatutakoek adierazten duten bezala, nola hezi daiteke sinesten eta sentitzen ez den zerbaitetan? Hiru aukerak dira eskaut mugimendua definitzen dutenak, eta hiruretako bat galduz gero, alde batera utziz gero edo garrantzi txikiagoa emanez gero gure esentzia galtzen ariko ginateke.

“Etengabeko formakuntzaz eta gizartearekiko konpromisoaz aparte, eskaut monitore batek fedea izan behar du gidari, aurreko biak bultzen dituelako edo behintzat aurreko biak fede ikuspuntu batetik bete behar direlako. Hori da nire aburuz eskaut monitore ba beste aisi monitore batzuetatik bereizten duena.”

Guzti honek hainbat galdera eta proposamen eta kontu sortzen dizkit eta planteatzen dizkit. Nire ustetan gizarte hezitzailearen ikuspegitik, eskaut begiraleon konpromiso eta lan egiteko gogoetan arreta jarri behar dugu eta eredutzat hartu kasu askotan. Ezin ahaztu dezakegu pertsona hauek boluntarioak direla eta sinesmen indartsu bat dutelako egiten dutela gizartean eta haur zein gazteekin egiten duten lana.

Alderdi asko konpartitzen dira eskauten eta gizarte hezitzaileen artean, alderdi komunak topatu ditzakegu, izan ere biok hezkuntzan sinesten dute, mundua guztiontzako gune hobe bat izan daitekeenaren ideian, eta horri ekiteko tresnak ditugula. Egia da, ziur asko, ideologiari dagokionez ezberdintasunak egon daitezkeela gizarte hezitzaile batzuen, pertsona diren heinean, eta Bizkaian gauden eskauten artean. Baina aurrera eramaten den lanaren helburua komuna da, bakoitzak bere eremutik heltzen diolarik egoerari eta aurre egiten dion.

Honekin batera, gizarte hezitzailearen figura mugimenduan bere gunea izan dezake, eta du askotan ere. Begiraleetako asko gizarte hezitzaileak edo gizarte zein hezkuntzarekin harremana duten bestelako ikasketa edo enplegu izateaz gain, mugimenduan lan egiteko (pertsona liberatuak daude) gizarte hezitzailearen figura eskatzen denetariko bat izanik. Baina horrez gain, badaude begiraleoi ematen dizkiguten formazioak, edo eskatuz gero gurekin lan egiten duten erakundeak edota egoera jakinetan laguntzen gaituztenak ere.

Askotan esan izan dut gizarte hezitzaile izateko ikasitako graduak, izandako irakasgaiak, ... gaitasun eta ikuspegi berri ugari aitortu dizkidala, baita esperientzia anitzak eta garrantzizkoak ere. Baina eskaut begirale izateak, taldean ardurak izateak, haurrekin eta hauen familiekin tratatu behar izateak, baita askotan egoera konplexuak bizi izateak, pertsona ugari ezagutzeak, ... pertsona bezala asko aberastu izan nauen esperientzia izan da, eta urte askotan ziur asko aberasten jarraituko nauena. Pertsona bezala aberastu nau, baina ikasitako eta ezagututako guztiak profesional bezala haztea ekarri izan du baita ere. Hein handi batean, gizarte hezkuntzako profesional izatea erabaki izan badut, eskaut munduan bizitakoaren ondoriozkoa da, bertan jasotakoak bizitzako erabaki garrantzitsu bat hartzea baldintzatu zuen nire kasuan, eta baita nire bizitza nolakoa izatea nahi dudana erabakitzen lagundu ere. Ikerketa honek asko eman izan dit eta inkestatutako 31 pertsonak zerbait ikasten lagundu izan didate ere. Mugimendua osatzen dugun pertsonak asko eta asko gara, anitzak eta oso ezberdinak gure artean (erantzunetan ikus daitekeen bezala) helburu komun batekin guztiok. Bakoitzak bere ulertzeko modua du boluntario izatea eta erakunde hain handi batean sartuta egotea ere. Baina sinesmen indartsu komun bat dugu:

“¡¡¡SER ESKAUT NO TIENE PRECIO!!!”

Geure bizitzetan hartutako erabaki bat izan da, zeinengatik apustu egin izan dugun eta beti eramango dugun gurekin zeren: *“eskaut un día, eskaut toda la vida.”*

Eskaut izatea bizitzeko modu bat da, bizitzari era ezberdin batean aurre egiteko era bat. Pertsona bezala aberasten gaituena, haztea eragiten duena, eta esperientzia, hobeak edo txarragoak izanda ere, ematen dizkiguna zeintzuk ikastea eragiten diguten, asko gainera.

“Hoberena honetan guztian da ikustea nola ni bezalako gazte asko dagoen mundu guztian zehar eta konkretuki Bizkaian, ni bezalako lana egiten eta mugimendu berean dauden ezberdintasun hain handiak. Eta hobereana, dena boluntarioa dela!! Bidean Beti Prest!!”

Azkenik lan hau aurrera eramatea ahalbidetu izan duten pertsonak izan duten paper garrantzitsua nabarmendu, ideiak eta ekarpen berriak eman dituztenak eta euren iritziak eta bizitzak azaltzeko arazorik izan ez dutenak, eta lan hau benetan aberatsa eta inportantea izatea eragin dutenak. Hausnarketa politikak irakurtzeko aukera eman didate, baita nireak propioak sortzea ere eta taldean zein bizitzan aurrera eramateko proposamenak eta ideiak eman ere.

“Me ha gustado mucho la encuesta te hace reflexionar sobre cómo eres y que es lo que pensamos. Zorte on”

“Eskerrik asko!!”

Eurentzako eta gizartearentzako, munduarentzako, guztiontzako, Beti Prest.

4. ERREFERENTZI BIBLIOGRAFIKOAK

- Aranguren, Luis. (2012). “Voluntariado, educación y ciudadanía”. *Educación social. Revista de Intervención Socioeducativa*, 50, pp 102 – 112
- Baden Powell, Robert. (1908). “*Scouting for boys*”. Erresuma Batua, Horace Cox.
- Baden Powell, Robert. (1929). “*Escultismo y movimientos juveniles*”. Dirección Nacional de Publicaciones de la Asociación de Scouts de México, A.C.
- Barceló, Tomeu. (2012). “El papel de la formación. Balances y retos”. *Educación social. Revista de Intervención Socioeducativa*, 50, pp 91-101
- Batlle, Roser. (2009). “La educación en el tiempo libre. Ciutatsi politiques educatives: reflexions sobre els futurs de l’educació”. Fundació Catalana de l’Esplai.
- Euskalerriko Eskautak (Ed) (2004). *Ideario*. Bilbo.
- IVAP. (1948). “Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala”. Herri Alduralaritzaren Euskal Erakundea
- La Belle, Thomas J. (1980) *Educación no formal y cambio social en América Latina*. México, D.F., Nueva Imagen.
- Nuviola, Alberto., Ruiz, Francisco y García, M^a Elena. (2003), “*Tiempo libre, ocio y actividad física en los adolescentes. La influencia de los padres*”. *Retos. Nuevas tendencias en Educación Física, Deporte y Recreación*, 6, pp. 13 – 20
- Puig, Jose Manuel. y Trilla, Jaume. (1996): *Pedagogía del Ocio*, Barcelona, Quintana.
- Reed, B. Horace eta Lee Loughran Elizabeth. (1986) *Más Allá de las Escuelas*. México D.F., Gernika,
- Vallory, Eduard. (2012). “El escultismo y el carácter intuitivo de su acción educativa”. *Educación social. Revista de Intervención Socioeducativa*, 50, pp. 80-90.

E R A N S K I N A K

1. Eranskina

GALDETEGIA/ CUESTIONARIO

“Eskaut begiraleen profila aztertzen” // “Analizando el perfil del monitor eskaut”

EHU – ko Gizarte Hezkuntzako ikasle bat naiz, laugarren mailan nago eta Gradu Amaierako Lana egiten ari naiz, zeinetarako hautatutako gaia hurrengoa den “Bizkaiko Eskaut Begiralearen Profila Aztertzea”. Horretarako mugimenduan aktibo zaudeten pertsonak ondorengo galdetegia betetzea beharrezkoa dut, zein guztiz anonimoa izango den. Eskatzen dizuet zintzotasunez betetzea eta nahi bezain beste azaltzea. Eskerririk asko aldeztu aurretik.

Soy una alumna de Educación Social de la UPV, estoy en cuarto y tengo que hacer el Trabajo de Fin de Grado, para el cual el tema que he elegido es “Analizar el Perfil del Monitor Eskaut en Vizcaya”. Para ello necesito que personas que estéis en activo en el movimiento aquí en Vizcaya me rellenéis el siguiente cuestionario, que será completamente anónimo. Os pido que lo rellenéis con total sinceridad y os expliquéis todo lo que queráis. Muchas Gracias de antemano.

1. **Adina/ Edad**
2. **Sexua/ Sexo** → Emakumezkoa/ Mujer Gizonezkoa/ Hombre
3. **Ikasten ari zara edo lanean?/ ¿Estudias o trabajas?**
 - **Zein ikasketa burutu dituzu?/ ¿Qué estudios has realizado?**
 - **Zein lan/ ikasketa burutzen ari zara?/ ¿Qué estas estudiando o cual es tu oficio?**
4. **Zenbat urte daramatzazu taldean?/ ¿Cuánto tiempo llevas en el grupo?**
 - **Zenbat urterekin hasi zinen?/ ¿Con cuántos años empezaste?**
 - **Zergatik?/ ¿Por qué empezaste?**
5. **Eskaut taldean prozesua egin izan baduzu: zergatik erabaki zenuen begirale izatera pasatzea?/ ¿Si de chaval estuviste en el grupo eskaut: porque decidiste ser monitor?**
6. **Taldean ez baduzu prozesurik izan eta begirale izatera sartu bazara eskaut taldean: zergatik?/ ¿Si no has sido chaval en el grupo: porqué has decidido ser monitor de un grupo eskaut?**

- 7. Eskaut mugimenduaren 3 aukerekin (Hezkuntza, Fedea eta Gizarte) ados zaude?/ ¿Estás de acuerdo con las tres opciones (Formación, Fe y Sociedad) del movimiento Eskaut?**
- 8. Ikasteaz/ lan egiteaz gain bestelako zaletasunik duzu? (kirola, boluntariora, elkarte kulturalen baten kide, bestelakorik ...)/ ¿Aparte de estudiar/ trabajar tienes algún tipo de afición a la que te gusta dedicar tu tiempo (deporte, voluntariado, miembro de alguna asociación cultural, otros ...)?**
- 9. Zailtasunak dituzu lana eta/edo ikasketak eskaut taldean begirale bezala betetzen dituzun funtzioekin bateratzeko? Eta bestelako zaletasunak?/ ¿Tienes alguna dificultad para conciliar el trabajo y/o los estudios con las funciones que tienes en el grupo eskaut como monitor? ¿Y con tus otras aficiones?**
- 10. Urtean, zenbat ordu ematen dituzu Eskaut taldeko ekintzetan? (haur edo gazteekin batzarrak, taldeko batzarrak, irteerak, formakuntzak, bizikidetzak, udalekuak, ...)/ ¿Al año, cuantas horas le dedicas a las acciones realizadas en el grupo eskaut? (reuniones con los chavales, reuniones del grupo, formaciones, convivencias, campamentos, ...)**
- 11. Esan zure ustez zeintzuk diren eskaut begiraleak izan behar dituzten ezinbesteko 5 ezaugarri./ Según tu cuales son 5 de las características imprescindibles que tienen que tener los monitores eskaut.**
- 12. Uste duzu eskaut begirale izateak etengabeko formakuntza eskatzen duela? Baiezkoa izatekotan erantzuna, zergatik?/ ¿Crees que ser monitor eskaut exige una formación continua? Siendo afirmativa la respuesta, ¿Por qué?**
- 13. Baloratu, zure iritziaren arabera, zure gizartearekiko konpromisoa (1etik 5era)/ Valora según tu opinión, tu compromiso para – con la sociedad (1 - 5).**

Minimoa

Maximoa

1 2 3 4 5

- 14. Beste zerbait nabarmendu edo adierazi nahi izanez gero, ondoren idatzi./ Si quieres comentar o subrayar cualquier aspecto, escribe a continuación.**

2. Eranskina

NOIZ ETA ZERGATIK HASI ZIREN ESKAUT TALDEAN BEGIRALEAK.

Pertsona hauen taldean hasteko zergatia 2.eranskinean azalduta eta aztertuta aurkitu daiteke. Eskaut begiraleak taldean arrazoi ezberdinen ondorioz hasi izan dira, ondoren adieraziko dira, 5. elementuan azaldutako hiru multzoetan banatuz, izan ere taldean sartzeko arrazoiak ezberdinak izan dira eskaut prozesua noiz hasi denaren arabera, erantzunetan antzeman ahal izan den bezala.

Umeak izan dira eskaut taldean:

- **%85.7ak ezagun bat edo familia kideren bat zuten taldean, edo bai indibiduoak zein familiak taldearekin nolabaiteko harremana zuen.**
- %14.29ak aisialdi hezitzailearen esperientzia bizitzeko esperientzia zuen.
- %14.29ak udako kanpamendu batera joateko interesa zuen, bai indibiduo edota gurasoak.

Eskaut taldean haurrak izan diren begiraleak arrazoi ezberdinen ondorioz hasi ziren taldean, nahiz eta kasu batzuetan arrazoi bat baino gehiago eman direlarik orokorrean gehiengoa taldearekin nolabaiteko harremana izatearen ondorioz hasi ziren eskaut mugimenduan: anai/ arrebak, lagunak, familia kideren bat ... taldean zeuden; gurasoak eskautak izan dira; gurasoak taldea hasi izan zuten, ... Ondoren galdetegietan aurkitutako hainbat erantzun azalduko dira, zeintzuek taldean zergatik hasi ziren galderari erantzuten dioten:

“Nire anaia bertan zegoelako eta ederto pasatzen zuela ikusten nuelako.”

“De pequeño empecé a ir porque era un sitio donde ibas a disfrutar, iban los colegas y conoces nueva gente con la que luego tienes trato.”

“Me llevaron unos amigos y mi aita era eskaut.”

“Aitak eskaut taldea hasi zuen, beraz, ezaguna eta egokia zeritzon taldean apuntatu ninduelako.”

Eskaut taldean sartzeko beste arrazoietako bat, honek eskaintzen duen aisialdi hezitzailearekiko interesa izan da baita ere, ondorengo erantzunek adierazten duten bezala:

“[...] egun batean familia meztatik ateratzerakoan, ikusi genuen (nire lagunak eta nik) nola ezagutzen genituen ume batzuk jolasten zeuden parrokiako lokalen ondoan eta parrokiara sartzen zirela. Orduan galdetu genuen zergatik zeuden han. Azaldu ziguten eskaut talde bat zela eta baita zer egiten zuten. Etxera bueltatzerakoan ama eta aitari esan nien eta apuntatu ginen bi lagun eta ni.”

“[...] ezagun batek eskaut kanpamendu batera joatea proposatu zidan beste bi lagunekin batera. Asko gustatu izan zitzaidan esperientzia, oso gustura ibili nintzen eta lagun asko egin genituen. [...] Egiten ziren ekintzak eta erakusten zizkiguten baloreak ikastolan ikasitakoarekin ez zuen zerikusirik, eta oso deigarria iruditu zitzaidan.”

Begirale lez hasi dira eskaut taldean:

- %28.47ak gizarte erantzukizuna sentitzen zuen.
- **%42.85ak hurrekin egotea eta begirale izatea gustuko zuen.**
- %14.29ak auzoan behar bat ikusita, eskaut talde bat sortzea erabaki zuen.
- **%42.85ari eskaut munduak interesa sortu zion.**

Multzo honetan sartzen den pertsona kopurua txikiagoa da, baina taldean hasteko arrazoiak anitzak dira, motibazio ezberdinak izan dituztelarik pertsona hauek ere, eskaut mugimenduaren kide bilakatzeko. Pertsona hauek galdera hau erantzutean eskaut izateko motibazioa zein izan den ere adierazten dute.

Portzentajeak ikusiz gero ondorioztatzen da gehiengo motibazioa eskaut taldean begirale izateko hurrekin egoteko nahia eta eskaut munduaren inguruan sortutako interesa direla. Horrez gain bestelako arrazoiak ere agertzen dira:

“Lagun bat begiralea zelako. Egun batean berarekin taldearen lokaletara joan nintzen margotzen laguntzera ... eta bertan geratu nintzen. Asko gustatu zitzaidan begiraleen artean zuten harremana. [...] Interesatzen hasi nintzen taldean egiten zutenaz eta handik bi asteetara ... taldean sartu nintzen.”

“Porque en mi barrio había falta de actividades para jóvenes con inquietudes y la única opción que había era crear un grupo. Por eso en cuanto nos llegó la oferta de crearlo nos metimos en este mundillo eskaut a pesar de los prejuicios que hay en el barrio.”

“Quería involucrarme en la educación de los y las jóvenes en el tiempo libre e intentar promover la transformación social.”

Ume izanik eskaut taldean egon, utzi eta begirale lez berriro sartu:

Multzo honetan sartzen diren pertsonak haur izanda eskaut talde batean egon izan ziren eta arrazoi ezberdinen ondorioz taldea utzi izan zuten. Ondoren eurek derrigorrezko ikasketak burutzen zituzten zentroak boluntariotza motaren bat burutzea eskatzen zuen irakasgai bat zuten. Bolondres lez aritzeko erakundeen zerrendan auzoko eskaut taldea zegoen. Irakasgaia eskaut taldean burutu ondoren, bertan geratu zirelarik, gaur egun taldean begirale direlarik.

“[...] dentro de una larga lista de grupos se encontraba el grupo en el que soy ahora monitor, y tuve mucho interés en retomar el rumbo del escultismo después de haberlo dejado.”

“En el colegio había una asignatura de voluntariado y decidí cursarla en el grupo eskaut del barrio, ya que de pequeño estuve en un grupo Eskaut y toda mi familia ha estado metida en este movimiento siempre.”

“Eskolan derrigorrezko boluntariotza egitea eskatzen ziguten, eta izugarrizko nahiak nituen txikitan bizi izandako esperientziako gogoratzeko.”

3. Eranskina

ESKAUT BEGIRALE IZATEKO PERTSONA HAUEN MOTIBAZIOA

Horrela adierazten dute galdera hau erantzutean, taldearekiko zor sentimendua eta hezten eta ikasten jarraitzeko nahia motibaziorik handiena dutela:

“Yo creo que existen varios motivos. Por una parte sientes un sentimiento de deuda con el grupo, en el sentido de que quieres que esos chavales y chavalas que están hoy día en el grupo vivan el mismo proceso que te ha hecho ser como eres a ti. Y por finalmente y más importante que el motivo anterior porque creo en el escultismo como una herramienta educativa para transformar la sociedad.”

“[...] nik ere nire begiraleak eduki ditut atzetik eta eurek bezala zor bat dut gizartearekin. Ea mundua aurkitu dudana baino politago utzi ahal dudan ... ”

“[...] es una cosa que no se debe perder, el educar a los chavales en una serie de valores.”

“[...] por la inquietud que sentía hacia la educación en los chavales y también para disfrutar de las diferentes experiencias que se ofertan desde los grupos.”

“Prozesua jarraitzeko, umeak gustatzen zaizkidalako, nire esperientzia hezitzaile bezala aberasteko, era desberdin batean hezteko eta mundua apurka hobetuz joateko.”

“[...] taldeak begirale beharra zuen eta sartzea erabaki nuen.”

Erantzunek erakusten dute pertsona hauen interesak zeintzuk ziren begirale izateko erabakia hartu zutenean. Aurretik aipatutako taldearekiko zor sentimenduaz gain, gizarterekiko eta gure inguruarekiko kezka nabaria da, baita hezkuntza tresna eraldatzailea denaren sinesmena ere.

“Porque es la mejor manera de mejorar mi barrio, [...]”

“En el grupo hacía falta que entrasen monitores nuevos pero sobre todo para crecer como persona e intentar crear personas críticas.”

Guzti hori bilduz eskaut mugimenduak bere idearioan (marko teorikoan azaldutakoa) zehazten dituen aukerak ditugu eta baita hori euren oinarrian duten pertsonak ere.

“[...] Euskalerriko Eskautak duen idearioarekin eta noski, eskautismoaren helburuekin guztiz ados nagoelako, benetan sinesten dut proiektuan.”

Galdetegiaren ondorioz jasotako datu guztietan oinarrituz, eta erantzun guztien azterketaren ostean, esan daiteke eskautak diren pertsona hauek taldeko bizitzaz haratago jarraitzen dutela eskautak izaten, euren eguneroko bizitzan eta baita bizitza osoan ere:

“[...] para mí el grupo y lo que lo envuelve es otra forma de vida y me gusta ser parte de ella. Si dejara de ser monitor en mi grupo haría otra cosa relacionada con el escultismo y el tema eskaut.”

4. Eranskina

ESKAUT IDEOLOGIAREN 3 AUKEREKIKO IRITZIA.

Atal honetan azaldu izan den bezala, iritzi ezberdinak daude ideologiaren inguruan, nahiz eta denak onartu eta barneratuta izan 3 aukerak. Horrela inkestatuak azaltzen dute taldean prozesu bat izan ondoren, 3 aukerak barneratzen direla eta propio egiten direla, bizitzaren egunerokotasunean aurrera eramanez. Azken batean pertsonaren dimentsio ezberdinak osotasunean lantzeko ezinbestekoak dira.

“[...] garrantzitsuena koherentzia eta jarduten garen horretan sinestea da, baita gurekin batera bidea egiten duten ume eta gazteengan sinestea ere.”

“[...], batzuetan zaila da momentu oro hirurak kontuan izatea baina guztiz ados nago hirurekin.”

“Son imprescindibles en el proceso educativo de los chavales.”

“Bai, baina ez da horrela hasieratik izan, orain dela hiru urte edo, horiek benetan nire bizitzako oinarri egin nahi nituela konturatu bainintzen.”

“[...] Se puede discutir mucho el tema de la Fe pero es imprevisto que en todo proceso educativo tiene que hacer una parte más espiritual, [...]”

“[...] Gizarte eta Heziketa aukera zeharka lantzen direla batez ere eta Fede aukera, zuzenago lantzen dela.”

Esan bezala, badago portzentaje txikiago bat fedea aukeraren inguruan zalantzak adierazten dituenak.

“[...] con fea tengo mis dudas pero todo son aportaciones de valores, mientras no sea un aprendizaje forzado en el que el cristianos se inculque, sino que se aprendan valores de ello y dé opción a los chavales a creer en lo que ellos quieran, de ahí el objetivo de crear una persona libre en sus ideales según el ideario.”

“Bai, halere askotan fede aukeren ekintzekin bat etortzea kostatzen zait.”

5. Eranskina

ESKAUT BEGIRALEEK URTE BATEN BETETZEN DITUZTEN EKINTZAK

Ondorengo zerrendan, Bizkaiko eskaut begiraleak urtean parte – hartzen duten ekintza ezberdinak adieraziko dira. Zerrenda hau galdetegietan jasotako erantzunetan oinarrituta dago.

- Begirale batzarrak (astero edo 2 astetik behin)
- EA batzarrak (2 astetik behin)
EA Animazio Taldea da, hau da, kargu ideologikoak dituzten pertsonak, koordinatzailearekin eta taldeko konsiliarioarekin osatzen duten taldea)
- Haur/ gazteekin batzarrak (astebururo)
- Adarreko kideekin batzarrak, ekintzak prestatzeko.
- Irteerak
 - Talde osokoak (kurtsuan 2 – 3)
 - EEB – ko taldeekin, Gorka Deuna (egun bat kurtsuan zehar)
 - Zonaldeko taldeekin (kurtsuan 2 – 3)
 - Adarrekoak (1 edo 2 kurtsuan)
- Taldearen bizikidetzak
 - Talde osokoak (asteburu bat kurtsuan zehar)
 - Adarrekoak (asteburu bat kurtsuan zehar)
- Taldeko begiraleen bizikidetzak:
 - Kurtsoa antolatzeko (asteburu bat kurtsu hasieran)
 - Kurtso erdialdean ebaluatzeko (asteburu bat)
- Formakuntzak
 - Taldekoak (asteburu batekoak, egun batekoak, ... taldearen beharren arabera)
 - Euskalerriko Eskautak Bizkaiak (EEB) antolatutakoak.
 - Martxoko Jardunaldiak (egun bat)
 - Kurtso hasierako Jardunaldiak (asteburu oso bat)
 - Zonaldeak antolatutakoak.
- Zonaldeko bizikidetzak (asteburu bat kurtsuan zehar)
- Kanpamentuak
 - Gabonetakoak (4 – 5 egun)
 - Aste Santukoak (5 egun)
 - Udakoak (15 egun)
- Karguko batzarrak (Gizarte, Heziketa, Fede eta Koordinazioa duten pertsonak)
 - Zonaldearekin.
 - Euskalerriko Eskautak Bizkaia (EEB).
- Bestelako batzarrak (gurasoekin, auzoko erakundeekin, udaletxearekin, ...)
- Bestelako ekintzak (herriko/ auzoko jaietan, egun bereziak, ...)
- EEB – ren Asanblada. (urtean behin)
- Era ez zuzenean: ekintzak prestatu, materialak bilatu, egun berezien prestakuntza, pentsatzea zelan egin, gurasoei deitu, ...
- EA – ko kide izanda: formakuntzak prestatu, begirale bizikidetzak prestatu, ...
- Zuzendari Batzordearen (junta directiva) batzarrak (hilabetean behin)
- Begirale taldean konfiantza eta talde lana lantzeko egiten diren momentu informalak (irteerak, bizikidetzak, afariak, egun pasak, ...)

Hauek dira galdetegietatik bildu izan diren ekintza ezberdinak. Taldeetako begiraleak kurtsoan zehar adierazitako ekintza guzti (edo gehiengoan) parte – hartzen dute. Aipatutakoez gain ziur asko, talde bakoitzak bestelako ekintza propioak izango ditu, bai taldekoak, herrikoak zein beste eremu batean kokatutakoak ere.

6. Eranskina

EZAUGARRIEN SAILKAPENA

1. GAITASUNAK:

- Alaia
- Erantzulea/Arduratsua
- Talde lanean aritzeko gaitasuna
- Dinamikoa
- Konpromisoa
- Sormena
- "Capacidad de posicionamiento"
- Koherentea
- Antolakuntza
- Kontzientzia
- Zoramena
- Hausnarketarako gaitasuna
- Konstantzia
- Enpatikoa
- Umiltasuna
- Karismatiokoa
- Optimista
- Pazientzia
- Idealista
- Lotsarik gabea
- Ilusioa
- Iniziatiba
- Eskuzabala
- Irudimena
- Positiboa
- Zoriontasuna
- Zintzoa
- Haurrengan jakin-mina eta egonezina sortzeko gai izatea.
- Egonezina (inquietud)
- Langilea
- Noiz hitz egin eta entzun jakin
- Une bakoitzean zertaz hitz egin jakin

2. BALIOAK

- Pertsona kristaua
- Eskaut mugimenduaren 3 aukerekin ados egon eta bizi.
- Egiten denean sinetsi.
- Eskaut bizimodua presente izan.

3. FORMAZIOA

- Eskaut mugimenduaren inguruan gehiago jakin nahi izatea.
- Hezitzailea
- Bizipenak izatea

4. JARRERAK

- Kritikoa
- Konprometitua Gizartearekin
- Aktiboa
- Ikasteko grina
- Prestutasuna izatea
- Gizarte kontuen inguruko jakin-mina
- Egiten denarekiko sentsibilizazioa
- Errespetua
- Lan egiteko gogoak
- Gogoak izatea
- Motibazioa
- "Distancia educativa"
- Askea izatea erabakiak hartzeko
- Eraldatzailea
- Austeritatea
- Parte – hartzailea
- Inplikaturia
- Aldez aurreko jarrera ona
- Ondo pasatzeko gogoak
- Altruista
- Egoeretara egokitzen jakitea.
- Tolerantzia
- Diziplina
- Deditazioa

- Bolondresa
- Gozatzeko gogoak
- Iraultzailea
- Begirale eta haur eta gazteei zabaldua egotea.

5. FUNTZIOAK

- Kulturazalea
- Beti Prest egotea
- Haur eta gazteekiko adibide (referente) izatea
- Bere prozesuaren protagonista
- Inprobisatzen jakitea
- Konfiantzazkoa izan/ konfiantza eman
- Berritzailea

7. Eranskina

13. BESTE EZER GEHITZEKO.

Atal honetan, inkestan parte – hartu izandako pertsonen erantzuteko askatasuna eman zaie, nahi izanez gero, nahi zuten zutenaren inguruan euren ekarpena egiteko, edo agertutako zerbaiten inguruan komentarioren bat egiteko.

- %48.4ak galdera honetan zerbait idatzi izan du.

Atal honetan jasotako informazioa eta komentarioak ezberdinak dira, azken batean bakoitzak nahi izan duena komentatu ahal izan du atal honetan. Denetarik izan dugu, inkestan parte – hartu ahal izanagatik eskerrak eman duena, zorte ona desiratu duena, galdetegiaren inguruan hausnarketa txiki bat egin duena eta baita eskaut begirale lanaren alderdiren bat azpimarratu duena ere. Askok nabarmentzen dute, eskaut izatea, eskaut mugimenduaren kide izatea bizitzeko era bat dela, bizimodu bat eta betirako den zerbait.

“Ser eskaut es ser diferente a otros voluntarios, ser eskaut es una forma de vida.”

“Simplemente subrayar que el ser eskaut es una forma de vida y que en mi opinión estar dentro de un movimiento constantemente cambiante y que llega a tantas y tantas personas, yo creo que es enriquecedor para la persona. En el eskaut se forma la persona tal y como debería ser para que la sociedad sea tal y como debería ser.”

“Azkenik esan nahi dut nire ustez eskaut begirale izatea ez da beste erakunde batzuen bezalakoa. Eskaut dena beti izango da eskauta, beraz, bertan transmititzen eta barneratzen ditugun baloreak eta kontzeptuak ez dira ez eskolan ez bizitza errealean ikasten. Eskaut talde batean egoteak pertsona bezala hobetu nau eta hori saiatzen naiz erakusten, nire umeak pertsona bezala hobetu daitezkeela.”

“Batzuetan lan eta efortsu handia izan arren, eskaut talde batean monitore izatea oso aberasgarria da eta hezkuntza pertsonala ekartzen du.”

Eskauta izatea gizartearentzako eta gizartean lan bat egitea ekartzen du, baina pertsona hauek esaten duten bezala, lan hori egiteko ez da zertan eskauta izan behar, beste hainbat erakunde eta ekintza daude non parte – hartu daitekeen eta lan egin daitekeen:

“Bai, amaitzeko gustatuko litzaidake goraiapatzea eskauta izateaz gain beste mila modu daudela gure gizartean eragina izateko. Izan ere, nire prozesua amaitu nuenean, eskaut begiralea izatea baino garrantzitsuagoa zen gizartearekin konpromisoa hartzea, non? Hori zure esku dago baina hori bai, EGON BETI PREST!”